

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

93/2022 Foru Agindua, apirilaren 26koa. Inskribatzea Hirigintza intereseko Taldeen Arabako Erregistroan Gasteizko udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko "Abetxuku egoitzetarako mendebaldea" 12 BIPBko konpentsazio batzordean izandako aldaketak

Lehenengoa. Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2022ko apirilaren 8an sartu zen idazki baten bidez, ziurtagiria bidali zuen. Ziurtagiri horrek Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko "Abetxuku egoitzetarako mendebaldea" 12 BIPBko konpentsazio batzordearen idazkariak egin zituen, jakinarazteko, batetik, konpentsazio batzordeak egoitza soziala aldatu zuela, eta, bestetik, zuzendaritza kontseiluko karguak berriro zituela, eta eskatu zuen Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskriba zitezela aldaketa horiek.

Bigarrena. Abetxuku egoitzetarako mendebaldea 12 BIPBko konpentsazio batzordea Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatu zen Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren otsailaren 8ko 66/2006 Foru Aginduaren bitartez.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Hirigintza Kudeatzekoo Arautegia onesten duen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuak, 164. artikuluan, hau xedatzen du: "Konpentsazio batzordeetan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organoko kideen aldaketak, enpresa urbanizatzaileen eransketa, eta batzordearen edo bere zuzendaritza organoen osieran eragina duen beste edozein, hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari jakinarazi beharko zaizkio, diharduen administrazioaren bitartez".

Kompentsazio batzordearen batzar orokor bereziak 2022ko martxoaren 31ko bileran hartutako erabakiei dagozkien ziurtagiriaren kopia konpultsatua bidali du Gasteizko Udalak.

Bigarrena. Aplikagarria da Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuak xedatutakoa, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroa sortu eta arautzen baita.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzea Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Abetxuku egoitzetarako mendebaldea 12 BIPBko konpentsazio batzordean izandako aldaketa, hain zuzen, entitate horren helbidea aldatzea: Vicente Goikoetxea kalea 6-7. solairua, Gasteiz.

Bigarrena. Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Elkartearen Erregistroan inskriba dadila Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Abetxuku egoitzetarako mendebaldea 12 BIPBko konpentsazio batzordean egindako aldaketa, hots, zuzendaritza kontseiluko karguak berritzea. Hona hemen:

— Kideak: Jorge Ozcariz Salazar jauna, Daniel Ábalos García jauna, Ainhoa Guevara Etchepare andrea, Ana Carolina Jacques Verano andrea, Rosa María San Julián López andrea eta David Ríos Martín jauna; Gasteizko Udaleko ordezkari gisa Miren Izaskun Iriarte Irureta andrea eta César Fernández de Landa Manzanedo jauna.

— Batzordeburua: Daniel Ábalos García jauna.

- Diruzaintza: Jorge Ozcariz Salazar jauna.
- Idazkaria: Ainhoa Guevara Etchepare andrea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrez gainera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera, edo egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO